

Schengen akordioa eta Euskal Herria

Schengen akordioak dakarren espazio polizialaz kezkatuta euskal alderdiak

Espainia EEEk bultzatutako itun horretan sartu izana kritikatu dute

Aste honetan egin dute Schengen akordioko partaide Espainia. Euskal alderdiek erabaki hori kritikatzear gain, zalantzan jarri dute EEEko estatueta barne mugak «desagertzea» helburu duen akordio honek aurrikusi dituen neurriak demokratikoak ote diren. Herritarrengan ekar dezakeen kontrol polizialaz bereziki kezkatuak agertu dira.

P.A. / DONOSTIA

Petsonen joanetoria eta merkatalgorako mugak ezabatzea da printzipioz Schengen akordioaren helburua. Itun honetako partaide diren EEEko estatuaren barne mugak gainditzeko ahalmena ekarriko luke, kooperazio poliziala eta herritarren datu informatikoak zabalduz. Kanpo mugak sendotzearekin berriz, etorkinen sarrerari zailtasun handiak jarriko zaizkie.

Kontrol neurri hauek gogor kritikatu dituzte euskal alderdiek Europan eta Madrilan dituzten ordezkariak. Karmelo Landa, Herri Batasunako europarlamentariaren ustez, jatorrian ez zeukan oso bestelako kutsua hartu du Schengen akordioak, batez ere kontrol polizialarena. «Neurri desberdinak erabiltzen dira kontrol hori egiten, SIS izeneko sistema informatiko erraldoia eta be-roan egindako persekuzio poliziala deitzen dena nabarmendu daitezke» azaldu du Landak.

Estatu bateko Poliziak beste estatu baten barruan norbaiten atzetik sartzeko eskubidea du akordio honen arabera. «Bistan da PSOEn gobernuak errefuxiatu eta exiliatuak jarraitzeko interes berezia duela» uste du HBko europarlamentariak. Horrek Schengeneko partaide batzuren artean iskanbila sortu duela dio: «Frantziako Gobernuak muga batzuk jarri dizkio Espainiakoari eta ez dio persekuziorako ahalmen osoa eman nahi, are gutxiago orain ezagutzera ematen ari den GAL prozesuarekin».

Joseba Azkarraga, Eusko Alkartasunako diputatuak ere «Europa polizial irekiaren» arazoa aipatu du. Espainiako Gobernuak kritikatu du, «espazio polizial hori balego bezala jokatu duelako egon aurretik, kasu

✓ Akordioak muga arazoak kentzea zuen helburu jatorrian, baina bestelako kutsua hartu du, euskal europarlamentariak diotenez.



Barne mugak desagertu eta kanpoak indartu akordioaren helburu.

askotan ilegaltasunetik, eta horregatik ez dut gobernuaren konfidantzarik». Azkarragaren ustez, akordio honen ostean kontrol legislatiborako formulak bilatu eta finkatu behar dira, «gobernuak iluntasunetik eta jarrera ez demokratikoetatik jokatzea eragozteko».

ETORKINEI BIDEAK ITXI Juan Maria Bandres, Euskadiko Ezkerrako europarlamentaria ere kritikatu egin du Espainiak hartu duen jarrera. «Elkartasun gutxi erakusten duen akordioa da, Europa bere baitan itxiko duen gotorlekua, barne mugak ixtearekin soilik, zailtasun handiak jartzen ditu» uste du.

Akordio honen jatorrian ez zegoela etorkinei atek ixteko asmorik adierazi du Bandresek, eta horrek ondorio larriak ekarriko dituela uste du. «Europan eta Espainian etorkinak onartzeko egon den tradizioa hautsi egingo du. Ez da ahaztu behar, Europa handi egiten etorkinek lagundu dutela, eta orain, bertan egoteko zailtasun handiak izango dituzte» azaldu du.

Europan hainbat indar atzerakoei etorkinen arazoarekin oso kezkatuak agertu zelako hartu dela bideak ixteko erabakia uste du Karmelo Landak: «Etorkin 'ilegalen' arazo horren aurkako neurri bezala».

Joseba Azkarragaren ustez, Espainiako Gobernuak garrantzia duen zerbaitetaz gogoratu beharko luke, «giza eskubideen babesa garrantzitzen duten eskubideak xedapen honen barruan sartzea alegia».

Ondorio «onak» ere izango ditu

✓ «Espainiako Legebiltzarrean akordioa osotasunean onartu edo errefusatu beharko da. Horrek ez du demokratikoa egiten akordioaren onarpena».

✓ «Espazio polizial hori balego bezala jokatu du Gobernuak egon aurretik, askotan ilegaltasunetik, horregatik ez dut konfidantzarik» dio Azkarragak.

✓ Landaren ustez, «akordio honen bidez bistan da Gobernuak errefuxiatu eta exiliatuak izaten jarraitzeko interes berezia duela».

Schengen akordioak Karmelo Landa europarlamentariaren iritziz. «Europako gobernuak berandu baino lehenago konturatuko dira Espainiak eginen dien mesedea ez dela hainbestekoa, hau da, euskal arazoa europaratu egingo duelako».

«EZTABAIDARIK GABEKO ONARPENA» Herrien eskubide politikoei dago kienean, «irtene bidea ez dago horrelako akordioetan, izaera errepresiboa dutelako eta erakunde polizialak indartu eta babes ten dituelako» uste du HBk Europan duen ordezkariak. Europaren nor-

baidea beste leku batetik doala dio, «Eslovenia eta Kroaziaren erabakietan ikusten den bezala».

Arazo formalak ere agerian utzi dituzte alderdiek. Schengen akordioaren onarpena «ez da demokratikoki aurrera eramane» uste du Bandresek. Udazkenean Espainiako Legebiltzarra ituna eztabaidatuko duen arren, ezingo dira emendakin partzialak aurkeztu, legediak hala agintzen duelako nazioarteko gaiak direnean.

«Tranpa bat da, ez delako debate publikorik egin, eta akordioa ezingo delako erreformatu».

Lerro artean

Batasun zentzazioak



Hiru gai nagusi antzeman zitezkeen atzoko prentsan. Espazioak, argazkien tamainuak eta titularren luzerak hiru gai garrantzitsuren presentziak ohartarazten zuten. Sevillako atentatua, Monteroren deklarazioa Amedo eta Dominguezaren epaiketan, Herri Batasunak EAri egindako proposamena eta honek emandako erantzuna izan ziren hiru gai nagusiak. Hasiera batean uste zenaren kontra, titularrei dagokienez (hau da, gertaeraren irakurketa nagusiari dagokionez) diferentzia gehiago agertzen ziren beste bi gaietan, Sevillako leherketarekin lotutakoan baino. Sevillako gartzelako zuzendariari zuzendutako bonba pakete batek lau hildako eta hainbat zauritu eragin zituela zioten egunkari gehienek, ñabardura arrarorik gabe. Bigarren maila informatibora jais-

tean, albistearren edukin eta testu lagungarrietan agertzen ziren egunkari bakoitzaren nortasun seinaleak. Txema Monteroren deklarazioaren inguruan, oro har, egunkari gehienek hari bera hartu zuten: muntaiarik antolatzea edota horrelakotan parte hartzeari egindako ukapena. Baina, adibidez, *El Correo Español*ek beste honako ideari heldu zion: «Epaileak ukatu egin du Amedo eta Txema Montero abokatuaren arteko bekaldura». *Eginek*, bere aldetik, Monteroren hitzak hartuz «muntaiaren teoria» «defentsaren ihardunbide ahula» zela azpimarratzen zuen. Gai nagusiaren lagungarri eskainitako testuetan, *Eginek* Monteroren deklarazioan Amedoren jarrera, begirada eta keinuetan erreparatzen zuen, «*Begiradak hilko balute...*» izenburupean. *El Mundo* egunkariak *Antena 3* kateak Balsategirekin eskainitako elkarrizketak sortutako erreakzio berriak jaso zituen. «*Komisariorde eta bere abokatuari muntai izorratu zitzaien*

eguna» titularren azpian idatzi zuen eguneroko kronika. *El Solek* Melchor Mirallesek egindako kritikei erantzuten zien.

Hirugarren gaiak, HBk EAri egindako proposamena eta azken honen erantzuna alegia, tramendu desberdinagoak izan zituen egunkarien artean. Batzuek proposameneren berri emateari lehentasuna ematen zioten bitartean, besteek erantzunari ematen zioten. Azken bide hau *El Diario Vasco* eta *Deiak* hartu zuten titular nagusia egiterakoan. Dena dela, bi egunkariak puntu puntu jaso zuten HBren proposamena. *El Correo Español*ek nahiago izan zuen gezurtapen bati heldu: «*Oliverik gezurtatu egin du Herri Batasunarekin negoziatu izana Muruaren apoioa*». *El Mundo* eta *DV* egunkarietan ez ziren falta beste alderdiek HBren proposamenari buruz egindako adierazpenak. Batasun zentzazioa berreskuratu nahi zutela zirudien.

PELLO URZELAI

GAL kasua ez dadila «sekretua» izan eskatu dute Portugalen

LISBOA

GALen trama portugaldarraz arduratzen den Lisboako epaitegiak eskatu du, Jose Lemos Ferreira, Portugaleko indar armatuen buru ohiak, justiziaren aurrean deklaratu ezala.

Epaitegiak Anibal Cavaco Silva lehen ministroari igorri dion eskaeran zera eskatzen da, aurrerantzean GALen trama ez dadila gai «sekretua» izan, «Estatuko segurtasunean» eragina izan dezaketen gaiekin gerta ohi den bezala. Auziak «sekretu» izaera galduz gero, Fernando Ramos teniente koronela, Informazio Militar Zerbitzuen buru ohiak, eta Serradas Duarte komandantea, Dinfolko zuzendari ohiak, epailearen aurrean deklaratzera behartu ahal izango ditu epaitegiak.

Hiru pertsona horien deklarazioak funtsezkotzat jo dituzte, GALeko arduradunek nola lortzen zituzten mertzenari portugaldarrak argitu ahal izateko. Jakina denez, mertzenari horiek Ipar Euskal Herrian euskal errefuxiatu politikoen kontra atentatuak burutzea zuten xede.

GALeko adar portugaldararen epaiketa irailak 24 hasiko da Lisboan, horrela erabaki bait zuen Apelazio Epaitegiak. 1989ko urrian egin behar zen epaiketaren errepikapena da, orduan zenbait irregulartasun sumatu ondoren atzeratu egin bait zuten.

1989ko urriaren 20an amaitu zen lehen epaiketa horretan, Jean Philippe Labade frantziarra eta beste lau portugaldar aske uzteko erabakia hartu zen. GAL taldearentzat lan egin zutelako akusaziopean epaitu zituzten. Dena dela, Jean Philippe Labade Lisboako gartzelan jarraitzen du preso, beste epaiketa beten zai dagoelako.